Andoaingo Udala

# Baimen eskaera duten ekipamenduen barrenean zarata kontrolatzeko Ordenantza

**1. artikulua. Helburua eta ezarpen esparrua.**

1. Ordenantza honen helburua hurrengo zatian aipatutako baimen eskaera lortu behar duten ekipamenduen barrenean zarata kontrolatzea izango da.
2. Hori dela eta Eusko Jaurlaritzaren Barne-Sailak emandako abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren arabera 3. eta 4. taldeetan sailkatuak datozen ostalaritza-lokaletan, zaratagatik gutxienez salaketa bat izanez gero, erregistro sonografikorako sistema bat jartzea derrigorrezkoa izango da.

   a) 3. taldea: Dantzarako pista izan barik, jarduera berezi gisa, musika izateko baimena duten lokalak eta instalazioak, esaterako:
      - Taberna bereziak, whiskytegiak, klubak, taberna amerikarrak, pubak, disko-tabernak, karaokeak eta hauekin bateragarri direnak.

   b) 4. taldea: Dantzarako pista eta guzti musika izateko baimena duten lokal eta instalazioak edo ikuskizunak egiteko baimena dutenak, esaterako:
      - Dantzalekuak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizundun jatetxeak eta hauekin bateragarri direnak.

**2. artikulua.**

Erregistro sonografikorako sistema edozein jarduerari jartzea eska dezake Udalak, jarduera honek dituen ezaugarriak direla-eta baimendutako mailetatik gorako zaratak sor ditzakeela uste baldin bada.

**3. artikulua. Sonografoaren gutxieneko baldintzak eta hura jartzea.**

1. Sistemak honako gutxieneko baldintzak izan beharko ditu:
   a) Jardueraren zarata aldia jaso eta gorde, hori gertatu den eguna eta hasera- eta amaiera-orduak, gehieneko epealdiaren minutu baten maila baliokidea eta hau zein ordutan gertatu den eta, azkenik, ekitaldiko batez besteko maila baliokideak.
   b) Zarata-iturrien funtzionamendu-aldiak jaso eta gorde, haiek piztu eta itzali diren egun eta orduaren adierazpenarekin eta, horrekin batera, soinu-erreprodukziorako sistemaren errendimendu energetikoa ere, haren

# Ordenanza municipal para el control del ruido en el interior de los establecimientos sujetos a licencia de apertura

**Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.**

1. La presente Ordenanza tiene por objeto controlar el ruido en el interior de los establecimientos sujetos a licencia de apertura que se indican en el apartado siguiente.
2. Para ello se establece la obligatoriedad de instalar un limitador frecuencial con registro sonográfico en aquellos locales de hostelería clasificados dentro de los grupos 3 y 4 del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, del Departamento de Interior del Gobierno Vasco y que hayan sido motivo de por lo menos una denuncia por ruido:
   a) Grupo 3: Locales e instalaciones con autorización para disponer, como actividad especial, de música sin pista de baile, tales como:
      - Bares especiales, whiskerías, clubs, bares americanos, pubs, disco bares, karaokes y asimilables.

   b) Grupo 4: Locales e instalaciones con autorización para disponer de música con pista de baile o realizar espectáculos, tales como:
      - Salas de fiestas, salas de baile, discotecas, cafés-teatros, restaurantes con espectáculos y asimilables.

**Artículo 2.**

El Ayuntamiento podrá exigir la colocación de un limitador frecuencial con registro sonográfico a cualquier actividad cuando por las características de la misma considere que puede producir ruidos por encima de los niveles autorizados.

**Artículo 3. Condiciones mínimas del sonógrafo y su instalación.**

1. El sistema deberá reunir las condiciones mínimas siguientes:
   a) Registrar y almacenar el periodo de funcionamiento ruidoso de la actividad, registrando fecha, hora de inicio y final, nivel equivalente a 1 minuto máximo de período, la hora a la que éste se produce, y por último los niveles equivalentes medios de la sesión.
   b) Registrar y almacenar los períodos de funcionamiento de las fuentes sonoras con indicación de fecha, hora de encendido y apagado, así como el rendimiento energético del sistema de producción

jarduera zuzena egiaztatu ahal izateko.

c) Aurreko puntuetan adierazi den informazioa gorde sei hilabeteko epean, gerora egin daitezkeen azterketetarako aukera emateko.

d) Udalaren zerbitzu teknikoek edota honek ahalmendutako erakundeak datu-bilketa egiteko aukera emango dien sistema homologaturen bat izatea, gero datu horiek ikuskatzailetza-zerbitzuaren informatika-sistematara eraman ahal izan daitezen, analizatu eta ebaluatuak izateko, eta hauek inprimatzeko aukera emateko eran. Datu-bilketa hau ez da hondatzailea izango eta ezingo du datuen manipulazioa egiteko aukerarik eman.

e) Azkenik, Setup-aren manipulaziorik ez gertatzeko beharrezko diren babes-elementuak izan beharko ditu. Setup-aren manipulazioa giltza elektroniko edo sarbide-klabeen bidez egingo da.

2. Sonografoa, behin jartzen denean, udal-zerbitzu teknikoek edo ahalmendutako erakundeak bakarrik eta soilik manipulatu ahal izango dute.

3. Sonografoa jartzea establezimenduaren titularraren kontura egingo da, tresna onartua izan ondoren, eta udal-zerbitzu teknikoen edo ahalmendutako erakundearen aurrean. Dena dela, Udalak bere kabuz jarri ahal izango ditu beharrezko edo egoki iritzitakoak adina sonografo, bai aldi baterako bai betirako, establezimendu-motaren arabera eta hau sortzen ari den edo ustez sor ditzakeen eragozpenak kontuan izanda, interesatuari jakinarazpena egin ondoren, eta titularraren kontura izango dira sortzen diren kostuak.

**4. artikulua. Ikuskatzea eta kontrola.**

1. Zarata-transmisioaren esparruan legez jarrita dauden mugak betetzen direla bermatuko duen ikuskatze- eta kontrol-zeregina horretarako eskumena duen udal-zerbitzuaren, edota beharrezko den espezializazio teknikoa izan eta Udalak langintza hori egiteko gaituko dituen erakunde laguntzaileen bidez egingo da.
2. Ikuskatze-lan horiek bai udalaren ekimenez bai alderdi interesatuak hala eskatuta egin ahal izango dira.
3. Jarduera, lokal edo establezimenduaren titularrak edo arduradunek derrigorrez utzi beharko diete sartzen, edozein unetan, ikuskapen eta kontrola egiteko egiaztatuta dauden pertsonei, bai eta

sonora, al objeto de poder comprobar su correcta actuación.

c) Conservar la información de los apartados anteriores durante un período de seis meses a fin de permitir una inspección a posteriori.

d) Disponer de un sistema homologado que permita a los Servicios Técnicos Municipales o entidad delegada, para realizar la captura de los mismos de forma que puedan ser trasladados a los sistemas informáticos del servicio de inspección para su análisis y evaluación, permitiendo la impresión de los mismos. Esta captura de datos no ha de se destructiva, ni ha de permitir la manipulación de los mismos.

e) Por último, el sistema deberá disponer de los elementos de protección necesarios que eviten la manipulación del «setup», realizándose ésta mediante llaves electrónicas o claves de acceso.

2. El sonógrafo, una vez instalado, podrá ser manipulado única y exclusivamente por los servicios técnicos municipales o entidad delegada.

3. La instalación del limitador frecuencial con registro sonográfico será realizada por cuenta del titular del establecimiento previa aprobación del aparato y en presencia de los servicios técnicos municipales o entidad delegada. No obstante, el Ayuntamiento podrá instalar por sus propios medios todos aquellos sonógrafos que estime necesarios u oportunos, bien temporalmente o definitivamente, en función del tipo de establecimiento y las molestias que esté ocasionando o presuntamente pueda ocasionar, previa comunicación al interesado, siendo a cuenta del titular los costes derivados.

**Artículo 4. Inspección y control.**

1. La función inspectora y de control tendente a garantizar el cumplimiento de los límites de transmisión de ruido legalmente fijado, se efectuará a través del servicio municipal competente, o por otras personas o entidades colaboradoras con la especialización técnica precisa, a las que el Ayuntamiento habilite para el ejercicio de este cometido.
2. La inspecciones podrán realizarse por iniciativa municipal o a instancia de parte interesada.
3. Los titulares o responsables de la actividad, local o establecimiento están obligados a permitir el libre acceso de las personas acreditadas para la inspección y control en cualquier momento, así

ikuskatze-garaian beharrezko den laguntza eman.

**5. artikulua. Zigor-araubidea.**

1. Udalak duen zigor-ahalmena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea xedatzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. Tituluan; Ahalmen zehatzailea erabiltzeko prozeduraren Araudia onartzen duen abuztuak 4ko 1398/1993 Erret Dekretuan; Euskal Autonomi Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmena arautzen duen otsailaren 20ko 2/1998 Legeak; Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta Ordenantza honetan jasoa dagoenaren arabera ere.

2. Zarata-transmisioaren arloan egiten diren administrazio mailako arau-hausteak arin, larri eta oso larritan sailkatuko dira.
    a) Arau-haustea arina izango da zarata-mailak, bai igorpen bai inmisioan, onar daitezkeen gehieneko mugak 3 dB(A) arte gainditzen badituzte.
    b) Huts larritzat joko da baimendutako igorpen edo inmisio-mugak 3 dB(A) baino gehiago gainditzea eta urte bateko epean bi arau-hauste arin baino gehiago burutzea.
    c) Huts oso larritzat joko da baimendutako igorpen edo inmisio-mugak 9 dB(A) baino gehiago gainditzea eta urte bateko epean bi arau-hauste larri baino gehiago burutzea. Arau-hauste larritzat joko da, era berean, Udal Zerbitzuak zigilupean jarritako aparailua baimenik gabe trukatu, manipulatu edo haren ordezkoa jartzea.
3. Agintarau honetako aginduetan egindako hausteak ondorengo eran zigortu ahal izango dira:
    a) Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin eta 300€ arteko isunekin.
    b) Arau-hauste larriak 300,01 €-tik 1.500 € bitarteko isunarekin eta lizentzia aldi baterako kentzearekin, gehienez ere sei hilabeterako, eta, ondorioz, zigorrak irauten duen bitartean jarduera erabat edo zati batean itxi edo bertan behera uztea.
    c) Arau-hauste oso larriak balira, 1.500,01 €-tik 3.000 € bitarteko isunarekin eta sei hilabete eta bi urte artean jarduera ixtearekin eta, ondorioz, zigorrak irauten duen bitartean jarduera itxi edo bertan behera uztearekin.

como a prestar la colaboración necesaria en la inspección.

**Artículo 5. Régimen sancionador.**

1. La potestad sancionadora del Ayuntamiento se regirá por lo dispuesto en el Título IX de la Ley 30/1.992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común; Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora; Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco; Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y en lo previsto en la presente Ordenanza.
2. Las infracciones administrativas en materia de transmisión por ruidos se clasifican en leves, graves y muy graves
    a) Se considera infracción leve si los límites sonoros, tanto en emisión como en inmisión, exceden hasta 3 dB(A) los límites máximos admisibles.
    b) Se considera infracción grave sobrepasar en más de 3 dB(A) los límites de emisión o inmisión autorizados y la comisión de más de dos infracciones leves en un año.
    c) Se considera infracción muy grave superar en más de 9 dB(A) los límites de emisión o inmisión autorizados y la comisión de más de dos infracciones graves en un año. También se considera infracción muy grave el trucaje, manipulación o sustitución sin autorización de aparatos precintados por el Servicio Municipal.
3. Las infracciones cometidas a los preceptos de esta ordenanza podrán ser sancionadas de la forma siguiente:
    a) Las infracciones leves, con apercibimiento y multa de hasta 300 €.
    b) Las infracciones graves, con multa de 300,01 € hasta 1.500 € y suspensión temporal de licencia por plazo de hasta seis meses, con la consiguiente clausura o cese de actividad, total o parcial, mientras subsista la sanción.
    c) Las infracciones muy graves, con multa de 1.500,01 € hasta 3.000 € y clausura de la actividad por períodos desde seis meses hasta dos años, con la consiguiente clausura o cese de la actividad mientras subsista la

sanción.

**6. artikulua.**
Dagokion zigorraren zenbatekoa mailakatzeko, ondorengo inguruabarrak hartuko dira kontuan, denak batera:
1. Egindako arau-haustea nolakoa den.
2. Sortutako kaltearen eta sor daitekeenaren larritasuna. Norbanakoei sortutako kalteak eta arau-hausteak gizartean duen eragina.
3. Arau-hauslearen erruzko edo engainuzko jarrera.
4. Arau-hausteak behin eta berriro egitea.

**Artículo 6.**
Para graduar la cuantía de las respectivas sanciones se valorarán conjuntamente las siguientes circunstancias:
1. La naturaleza de la infracción.
2. La gravedad del daño producido y potencial. Perjuicios causados a particulares y repercusión social de la infracción.
3. La conducta dolosa o culposa del infractor.
4. La reincidencia o reiteración en la comisión de infracciones.

**Aldi baterako Xedapena.**
Agintarau hau indarrean jarri aurretik zaratagatik gutxienez isun bat izan duten establezimenduetatik 1. artikuluko 3. eta 4. taldeetan sartuta daudenek, hiru hilabeteko epea izango dute, gehienez, sonografia-erregistro sistema jartzeko.

**Disposición Transitoria.**
Los establecimientos con por lo menos una denuncia por ruido con anterioridad a la entrada en vigor de la Ordenanza y comprendidos en los grupos 3 y 4 del artículo 1, dispondrán de un plazo máximo de tres meses para instalar el sistema de registro sonográfico.

**Azken Xedapenak.**
**Aurrena.** Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen denetik hamabost lanegunera jarriko da indarrean.

**Bigarrena.** Alkatetzak ahalmena izango du Ordenantza hau behar bezala ulertu eta ezartzeko beharrezko den adina agindu eta jarraibide emateko.

**Disposiciones Finales.**
**Primera.** La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto íntegro de la misma en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Segunda.** La Alcaldía queda facultada para dictar cuantas ordenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de la Ordenanza.

Andoainen 2004ko azaroaren 2n.

En Andoain, a 2 de noviembre de 2004